

59 ikasmaterial berri 2018. urterako

16 arlo profesionaleko ikasmaterialak euskaratuko dira. Hemen duzue zerrenda osoa eta 2018ko katalogoa: jakinbai.eus

- Administrazioa eta Kudeaketa
- Arte Grafikoa
- Elektrizitatea eta Elektronika
- Eraikuntza eta Obra Zibila
- Fabrikazio Mekanikoa
- Garraioa eta Ibilgailuen Mantentze Lanak
- Gizarte eta Kultura Zerbitzuak
- Informatika eta Komunikazioa
- Instalazioa eta Mantentze Lanak
- Irudi Pertsonala
- Itsasoa eta Arrantza
- Kirol Ekintzak
- Merkataritza
- Nekazaritza
- Osasungintza
- Ostalaritza eta Turismoa
- Zehar Lerroak
- Hiztegi kolaboratiboa



Euskaraz sortutako ikasmaterialak zuzentzeko deialdia

Irakasleak, euskaraz sortutako ikasmaterialak, IRALEko tutoreak, zuzentzeko aukera (Epea 2017-03-23)

Horretarako fitxa bete eta ikasmateriala jakinbai@jakinbai.eus helbidera bidali, martxoarena baino lehen. Zabaldu mezua irakasleen artean. Urtero, proiektu honen bidez 20 ikasmaterial inguru zuzentzen dira. Ikasmaterialak word formatuan bidali behar dira. IRALEko tutorea irakaslearekin harremanetan jartzen da kezka teknikoak argitzeko. Aukera paregabea norberaren Lanbide Heziketako euskarazko ikasmaterialak txukun izateko.

[Ikasmateriala tutorizatzeko fitxa](#)

[Ikasmaterialak zuzentzeko prozedura](#)



IRAKASLEEN EUSKARAZKO PRESTAKUNTZA ZERBITZUA

Laburrak

Nafarroako irakasleekin bilera

Otsailaren 7an, Lanbide Heziketan euskaraz aritzen diren 10 irakasleekin izan ginen, jakinbai.eus aurkeztu eta euskarazko ikasmaterialen behar handia ikusten dute. Elkarrekin lanean aritzeko asmoa agertu zuten.

Kutxa Fundazioarekin elkarlana

2018an elkarlan berri bat garatuko da eta horri esker 3 ikasmaterial berri euskaratuko dira:

- Metrologia eta saiakuntza
- Pazienteak ebakuatu eta lekualdatzea
- Mendekotasun-egoera dauden pertsonen ezaugarriak eta beharrak

HIZKELAN II jardunaldia lurretan

2018ko urriaren 16an egingo da Euskararen eta hizkuntzen kudeaketa Lanbide Heziketan eta Enpresan gaia jorratuko da.

